

ELTXOA

INAXIO LOPEZ DE ARANA

IDAZLE ESKOLAKO IKASLE OHIA

Gaua zen eltxo baten hegal-hots gogai-karriak nire logelako bake-giroa zapuztu zuenean. Di-da altxatu, argia piztu eta galtzerdi zahar batekin “gautxori” mada-rikatu hura akabatzen saiatu nintzen. Baina alferrik, behin eta berriro saiatua-gatik, beti ihes egiten baitzuen eltxoak, ni baino azkarragoa izanik. Ehiza ero haren ondorioz, gorputz-adarrak gero eta nekatuago nituen, eta horrekin bate-ratsu, betazalak ixten hasi zitzaizkidan, begiak guztiz estali arte.

Ezustean, ezinegon lazgarri batek harra-patu ninduen. Ez nuen, hala ere, zirkinik egin. Ohean jarraitu nuen, nire logelan, ezeri aurre egiteko kemenik ez nuela. Gorputza sorgor nuen, baina zerbait zebilkidan barrutik, ziztu bizian; odola bor-bor ari zitzaidan gorputz osoan zehar, zainetatik ihes egin nahi izango balit bezala. Usterik gutxienean, nire sorgortasuna desagertu eta hanka-besoak plastikozkoak banitu bezala hasi zitzaizkidan mugitzen. Sabaia gainera erori behar zitzaidala pentsatu nuen.

Garrasika hasi nintzen. Nire oihuak kalearen txokorik urrunenetik ere aditu-ko ziren. Handik askatzeko hamaika bider eskatu nuen, baina han inork ez zidan entzuten, edo entzunagatik ere, ez zidaten lagundu nahi izango. Ni Ogasu-neko ikuskatzailea naiz lanbidez, eta ez nintzateke harrituko jendeak entzungo-rrarena egin izan balit, oihuka ero moduan ari nintzenez; baina zer egingo diogu? Jendeak ez gaitu oso maite diru-kontuak gobernatzen ditugunok; solda-taren barruan dagoen zerbait da. Ardura handiko lanpostu batean jardun arren, une hartan ni neure logelan gatibu nen-

goen eta ez nuen ihesbiderik. Ezin nuen gehiago jasan lau horma haien artean luzaroago egon beharrak eragiten zidan estura. Ohartu nintzen apurka-apurka hiltzen ari nintzela, itotzen, erotzen...

Bat-batean, lehengo eltxo hura, nire eraso guztietatik salbu atera zena, berriro ikusi nuen, baina hasieran ez nion antzik eman, alimaleko neurriak hartuta zeuzkanez gero. Azal barrukoa milikatzen ari zitzaidan! Odol guztia xurgatu nahi zidan kabroiak! Guztiz ikaratuta nengo-en. Laguntza behar-beharrezkoa nuen. Infernu hartatik alde egin beharra neukan! Beste bat baino ez nuen behar! Beste dosi bat bakarrik! Bat!

Ordu (edo egun?) batzuk geroago, sendagaien usain sarkorrak esnarazi ninduen. Ez nengoen nire logelan, beste nonbait baizik: ospitalean seguru asko, ospitale bateko gela hits horietako batean, ohean etzanda, besteren menpe. Baina inor ez nuen inguruan galdetzeko. Ziurgabetasun hark gero eta gehiago asaldatzen ninduen. Beso bat zeharo ubelduta eta zulatuta neukan. Harritze-koa: odol-tanta bakar bat ere ez, main-dire-burusietan. Argi moduko bat piztu zen nire barnean, eta puzzlearen zati guztiak ondo egokitzen hasi ziren: nire logela, eltxo erraldoiaren eraso, eutsi ezinezko izu-ikara, dosia... Nire garra-siekin larrituta, seguru asko auzokideek Poliziari deituko zioten, eta Poliziak ambulanzari. Zorionez, konortea galdu nuen, eta ezin izan nuen “ikuskitzuna”z gozatu. Nire logelan baino gozoago egon arren, maindire eta horma haien zurtasun orbangabeak gehiago artega-tzen ninduen lasaitu baino. Nire gaine-an gurutze bat zegoen, ospitaleko gela gehienetan bezala. Gurutzeko hari gus-tura galdetuko nion zer egin behar nuen amaraun hartatik ihes egiteko, baina bera ez zegoen entzuteko, eta ni ere ez, hitz egiteko.

Bata zuriko gizon batek maindirearekin burua estali zidan. Ez nekien zer ari zen



gertatzen han. Gainera, artaburu hari esker ezin nuen ezertxo ere ikusi. Eta entzun ere ez!!! Baina bizirik nengoen!!! Oraindik pentsatzeko ahalmena neukan, besterekiko komunikazioan huts egin arren. Hanka bat altxatzen saiatu nintzen, ingurukoei bizirik nengoela ohar-tarazteko eta, zorte pixka batez, sasi-sen-dagile hari ipurdian ostiko bat emateko, maindireekin jolasean ibiltzeagatik. Baina ezin. Hanka milimetro bat ere ez nuen mugitu. Ez nuen horretarako kemenik. Gero, ahaleginak egin nituen garrasi egiteko. Hauspoa bete, eta puffff; ezeeeeer ez. Guztiz etsita nengoen.

Argiune batean bururatu zitzaidan hura guztia amesgaizto bat besterik ez zela izango. Nahi bai. Halako batean, zerbaiten ziprztinak nabaritzen hasi nintzen maindireen azpitik. “Ospitale puta honetan itoginak ere baditiztek”, pentsatu nuen nire artean. Ez ba: ospitaleko apaiza zen, eta ur bedeinkatua botatzen ari zitzaidan, Jainkoarekin bakeak eginda joan nendin. Bai, hilda nengoen!!! Alde egin beharra neukan handik, bizidunen mundutik alegia. Baina ez nintzen bakar-riko joango. Odol guztia xurgatu zidan eltxo madarikatua ez zuen beste inor ziztatuko. Eskuan indar guztiz atxikita neukan bere eztena, nire etxeko logelan izandako borrokan gupidarik gabe erauzi bainion. Ezten hura izango nuen bidaide, burua nik baino nahasiago zuen batek xiringa baten orratzaren itxura lañoa har baziezaiokeen ere.

Hala eman nituen hiru hilabete, ames-gaiztoak baino askoz ere okerragoak ziren eldarnioetan pulunpaturik, desin-toxikazio-zentro hits batean. ■